

**IZADIAREN
BIDERAGARRITASUNA**

**EGUNGO GAIA
ERLIGIOSOENTZAKO GAUR EGUN**

BEROTZE OROKORRA


ETA

ALDAKETA KLIMATIKOA

Zirriborrea 2002 eko Otsailak 15

Txosten zirriborrea

*Erromako
eraginez*



*JPPCren
Berotze*

*Orokorrazko Lan Taldeek prestatua, 2002eko Martxoan
Adierazpen, galdera edo informazio geiago nahi baduzu konektatu:*

jpclimatechange@yahoo.co.uk

Web page: www.ofm-jpic.org/globalwarming

Aldaketa klimatikoak gure bizieran duen eragina

Sarrera: Txosten honek aldaketa klimatikoaz eta berotze orokorraz argibiderik eskeini nahi du, eta aldi berean gai hau zure bizitokian, eskualdean eta nazioan lekutzeko hainbat lagungarri luzatu. Txosten honek gaiaren alderdi aniztasuna hobeto ulertzen eta gure planeta salbatzekimenen beharraz konturatzen lagunduko dizula uste dugu.

Talde eta elkarleen lanerako erabilgarri diren iturburu bibliko eta teologiko batzuk aipatzen ditugu, baita zure heziketa eta prestaera iraunkorrerako zenbait *Baliabide*. Txosten hau ez da aldaketa klimatiko eta berotze orokorraren konponbidea aukera bat, baina agian gaia hasteko urrats garrantzitsu suerta daiteke informazioa non bila ahal izateko.

Txosten honek hurrengo galderak erantzuten saiatzen da:

Zer dira berotze orokorra eta aldaketa klimatikoa?

Zeintzuk dira berotze orokorraren sorburuak?

- *Zein bere ondorioak giza justizian?*
- *Zein bere loturak?*

Zer dela eta du zerikusia eta lotura erlijioekin?

Zer diote ekologiaz gure erlijio ohiturek?

Zer egin dezakegu ORAIN?

Aldaketa klimatikoa eta berotze orokorra zer diren

Giza ekimenek atmosferaren osaera kimikoa aldatzen ari dira, berotegi efektua eragiten duten gasen jaulkipena ugaltzen bait da –batez ere dioxido karbonikoa, metanoa eta nitroso oxidoa bitartez. Berotasunik eskuratzeko duten ahalmenagatik, gas horiek Lurraren gehiegizko berotze bat eragiten ari dira.

Eguzki indarrak planetaren giroa eta atmosferaren egoera baldintzatzen du, baita lurrazalaren hotz-beroa ere; bestalde, Lurra espazioara itzultzen den indarra jaulkitzen dihardu. Berotegi efektuaren eragile diren gasek atmosferara jaulkitutako indarraren zatia bereganatzen dute, berotasuna berean gordez, berotokietako kristalek egiten duten antzera. Naturala den "berotegi efektu" hau gabe, hotza oraingokoa baino askozaz handiagoa izango litzateke, eta biziera ez litzateke ezagutzen dugun adinekoa izango. Berez, berotegi efektua sortzen duten gasengatik dugu lurtean 15° C / 60° F bataz besteko hotz-beroa.

Aurrean esandakoaz gain, aipatutako gasen kopurua atmosferan ugaltzen denean, arazoak gerta daitezke. Industria iraultzaren hasiera garaitik atmosferan den dioxido karbonikoaren kopurua ia % 30 bat ugaltu da, metanoarena, ordea, bikoitzaren gaineko ugartu da, eta oxido nitrosoarena % 15 ingurura igo da. Horrela, ugaltze hauek lurraren egurats beroa bereganatzeko ahalmena gehiagotu egin dute. Zergatik da ugartzen berotegi efektua eragiten duten gasen kopurua?

Zientzilarien eritziz erregai fosilak eta bestelako giza ekimenak dira dioxido karbonikoaren eta bestelako gas gehitzearen sorburu nagusia.

- Aldaketa klimatikoa XXI mendean munduak aurpegiratu behar duen erronka nagusienetako bat da.
- Azken aldiko ikerketek frogatzen dutenez, azken 50 urteetan nabaritu den berotasunaren ugaltzea hein handi batetan giza ekimenek sortua izan da
- Etorkizunari begira berotze orokorra uste zen baino handiago izango da

Berotze orokorraren buruzko ikerketa gehienek bat datoz luraren ezinbesteko berotzearen ugaltze batetara goazela, eta aldaketa klimatikoa jadanik hasi dela diote. 1997 urteko abenduan eta 2000 urteko hilabete berean nazioarteko bi mila zientzilariez osatua den Aldaketa Klimatikozko Gobernuarteko Mahaiak (AKGM) gaur egungo arazoaren ikuspegi bat zabaldu zuen:

- Izadiak sortutako hondamendiak ugariago eta bortitzagoak izango dira, hala nola lurrikarak, uholdeak, haizerauntsiak, zikloiak eta lehorteak. Berez, hondamendi klimatiko handiak 1960 urtez geroztik laukotu egin dira.
- Hotz-berotasun orokorra datorren mendean batz bestea 5°C (10°F) gradu igoko dela aurreikusten da, nahiz eta zenbait lekutan igoera handiagorik izan daitekeen. Dagoeneko Artiko lurraldean izotz azala nabarmenki gutxitu da.
- Zuhaitzek dioxido karbonikoaren xurgaketan funtsezko eragina dutenez, zuhaitzen urritzeak atmosferan gas horren kopuru ugaltzea tamaina garrantzitsuan eragiten du. Aurre-zenbaketen arabera, gehiagotzen doan zuhaitz urritzeak giza ekimenek sortutako karbono jaulkipenari % 20 bat erantzten dio.
- Bigarren Gerrate Mundiala geroztik, munduan diren motorrezko ibilgailu kopurua 40 milioetik 680 miloera igo da. Motorrezko ibilgailuek gehitu egiten dute era garrantzitsu batetan gizakiak eragindako eta atmosferara jaulkitutako dioxido karbonikoa.
- Azken 50 urtetan, eta gutxienera zenbatuz, birziklatzen ez den indarraren iturburuen erdia xahutu dugu, eta horrezaz gain planetaren basoen erdia baino gehiago suntsitu egin da.

Zein da berotze orokorraren sorburua?

Berotze orokorra atmosferan gas batzuen kopurua ugaltzen denean hasten da, gas horiek giza ta industri ekimenengatik berotegi efektua eragiten dutelako dira ezagutuak. Gas horien artean garrantzitsuenak dioxido karbonikoa (CO_2) da, ikatzaren, petrolioaren eta gasaren erabilpen ondorioz atmosferan geratzen delarik; atmosferan suertatzen den bilteta ere basoetako suteengatik eta zuhaitz urritzearengatik gehitu egiten da. Berotegi efektua eragiten duten beste gasa oxido nitrosoa da, ibilgailuek eta industriak jaulkitzen dutena, metanozko jaulkipena, aldiz, industria zein nekazaritzako ekimenengatik gertatzen da. Kloro eta fluorozko karbonuak (CFC), berotegi efektuaren eragile izanez gain, berotze orokorra sortzeko duten ahalmen boteretsuarengatik dute garrantzia, ozono azalean ere kontutan izateko eragina dute; hala ere gaur egun Montrealgo Hitzarmenpean daude zuzenduak.

Dioxido karbonikoak, kloro eta fluorozko karbonuak, metanoa eta oxido nitrosoa atmosferan biltzen eta eguzkiaren indarra bereganatzen duten gas kutsatzaile dira, planetaren berotzea gauzatuz. Nahiz eta ozeanoak eta landareak dioxido karbonikozko multzo handiak xurgatu, ez dute jaulkiturik den kopurua xurgatzeko ahalmen adina. Gauzak horrela, berotegi efektua sortzen duten gasen kopuru atmosferikoa gehitu egiten da, eta horren ondorioz berotze orokorra azkartzen doa.


Azken ehun urteotan, nabarmenki gehitu da indarraren kontsumoa munduan. Gutxienez indarraren % 70a garatutako nazioek erabiltzen dute eta indar horren % 78a errekin fosilengandik hartzen da. Desoreka handi bat sortzen du horrek, lurralde batzuk behartasun handi batetan geratzen bait dira, eta aldi berean beste batzuk sekulako etekinak eskuratzen dituzte. Baldin eta indar birziklagaien iturburuak (hala nola, eguzkia, haizea, ura) oso garrantzizko zeregina ukan, arlo horretara jarritako dirutza guztiz urria da errekin fosila eta nuklear indarrarekin gonbaratzen bada, bai nazio garatuetan zein garatze bidean direnetan.

Zuhaitz urritzea, zuhaitzen dioxido karbonikoaren xurgaketa gutxitzen denez, gas horren jaulkipenaren eragile da % 20 batetan, gas horrek gainera leku bakoitzeko klima eta ur-aldiak aldatzen ditu, zein eta lur joritasuna.

Aldaketa klimatikoaren ondorio kaltegarriak saihesteko, dagoen kloro eta fluoro karbonatuzko maila atmosferikoa iraunarazteari lehen bait lehen ekin behar diogu; horrek eskatzen du, Aldaketa Klimatikoazko Gobernuarteko Mahaiaren (AKGM) arabera, kloro eta fluoro karbonatuen jaulkipenak % 50an uztea. Aurrerago agertzen ditugu gerta daitezkeen ondorio txar batzuk, laister batetan ekimenik eragiten ez badugu:

Ondorioak:

- ❖ Itsaso mailaren igoerak gizakiengan ondorio larria izango du. Kaltegai suertatzen dira, batez ere, uharte nazioetako biztanleak, zenbait nazioetan itsaldean multzoki bizi direnak eta itsas sarrerezko lurraldeetako biztanleak, hala nola ere lehorte eta uholdeak jasaten dituzten nazioetako jende behartsuak. 2020 urterako munduko biztanleriaren lautik hiruk lehorte ala uholde arriskutan egon daitezkeela aurreikusten da. Pobretu diren nazioek jasango dituzte bereziki aldaketa klimatikoaren ondorioak; honela izango da, alde batetik beren geografiagatik eta bestalde aldaketak bereganatzeko zein ondorioak saihesteko dituzten baliabide urriengatik.
- ❖ Gizakiak eta planetako beste izakiak jadanik aldaketa klimatikoaren ondorioak jasaten ari dira. Zientzi aurreikuspenen arabera, kalte horren tamaina eta gogortasuna gehitu egingo da, beste zergatien artean, berotasunaren eraginagatik, eulien bitartez tropikoko gaisotasunen ugaltzeagatik -Ekuadorreko ipar zein hegoaldean- eta gehiagora doan elikaduraren zihurtasun ezagatik.
- ❖ Berotegi efektua eragiten duten gas jaulkipenak gutxitzen ez baditugu, berotze orokorraren urteko dirukostea 50 urtetan \$300 bilioira igo daiteke. Gure gobernari eta politikoez azkarreko ekimenik eragiten ez badute, munduko ekonomiak atzerapen latza jasango du; zentzu honetan merezi du aipatzeak azken hamarkadan naturako hondamendiek 608 bilioiko dirukostea ekarri dutela.
- ❖ Aldaketa Klimatikozko Hitzarmenerako Alderdien 7. Bilkuran (AKH), Marruekosko Marrakech-en 2001ko azaroan ospatutakoan, Nazioarteko Ingurune Egitarau (NIE) ordezkariak adierazi zuen berotze orokorrak oinarritzko diren elikagai batzuen uzta -hala nola gariarena, arrozarena eta artoarena- % 30 bat murriztu daitekeela hurrengo 100 urteetan. Nekazariak mendi lurralde goren eta hotzagoetara joan beharra izango dutela sumatzen da, bizikera arrunta zein ur banaketaren kalitatea eta kantitatea kaltetuko direlarik. Aurreikuspen hauek adierazten dute garatze bidean diren nazioetako nekazari kopuru haundi bat jadanik gose eta elikadura ezaren arazoei aurre egin beharrean diharduela.



Jadanik, inguruneagatik munduan 25 miloi errefuxiatu dago.

Hausnarketarako galderak:

- **Guzti honetan ba ote dago zuretzat berria den zerbait?**
- **Aipatutako gertaerak zuri zertara lotzen zaituzte?**

Gaur egun planetak duen egoera estua gehiegizko kontsumoatik dator, baina ez mundu osoko biztanleriaren % 80tik, gabezia bizi denetik, baizik aberats den % 20tik, munduko baliabide naturalen % 86.a kontsumitzen duenetik.

Zer dio gure sinesmenaren ohiturak?

Teologia, onartua izateko, Izadiaren haunditasuna eta multzoketaren ezagutza zientifikoan oinarritua egon behar du.

San Bonabenturak, San Franziskoren bizipena (esperientzia) jarraituz, Izadiaren Sakramentutasunaren teologia bat sortu zuen, hau da, sortutako izadian Kristoren aztarnak arakatzearena. Mundua Jainko izateaz beterik dago; sortutako gauza guztiak Sortzailearen seinale eta agerpen direlarik, bere ezaugarriren bat leku guztietan uzten bait du. Izadiaren edozein zati suntsitzeak Kristoren irudia irudigabetzea da, bere izaera izaki guztietan bait dago. Kristoren sufrimendua ez da soilik gertatzen gizakien eskubideak bortxatzen eta zapaltzen direnean, baizik ere itsasoak, ibaiak eta basoak desitxuratuz. Izadia sakramentuzkotzat hartzen denean, edota Jainkoaren agerpen eta berarenganako bidetzat, besteekiko dugun harreman menperatzaile eta boteretsuak aldatzera behartuak gara, onspenezkoak eta begirunezkoak erabiltzera, hain zuzen.

Zer dela ta erlijiosoek ingurune gaietaz arduratu behar dugu?

Lurraren aurka eragiten dugun zapalketa jasateko ahalmen oparia du lurra berak, baina ezin du betirako horretan aritu gizateriaren biziraupena arriskupean jarri gabe. Erlijioso garen eran egoera horren aldeko zerbait egin beharra dugu.

Jainko sortzailearekin baketurik, izadi osoarekin baketurik Pontifikal mezuak (1990ko urtarrilaren 1koa), ingurune eta garapen gaietara zuzendua, dio "berezi kristauak dira izadiarekiko eta Sortzailearekiko dituzten zereginak euren sinesmenaren ekitekotzat hartzen dutenak." (15. zkia.)

Jainkoarena den mundu honek sozial justizia kontutan hartzeaz gain, hau da, gizakien arteko elkar harreman zuzenaz gain, ingurunearekiko zuzenbidez ere arduratzea eskatzen du, hots, gizaki artean eta beste izakiekin zein Lurrarekin harreman zuzenak lantzea. Egun, Izadia gizabanako artean eta Jainko hirukoitzarekin bilduriko elkarte gisa ulertzen da. Ingurunearen bideragarritasuna erlijioen guztien ohituretan funtsezko alderdia da, bere inguruan elkarrizketa, elkarlana eta elkar-ulertzea sustagai suertatzen direlarik.

Eleizek eta erlijioen arteko taldeek aldaketa klimatikoaz arreta haundia dute. Egun nagusitzen doan Ekumeniko giropean gai honetaz ardura daitezkeen kristau eta ezkristau deitu behar ditugu.

Gaur eskuratu behar dugun erronka zera da:

- ❖ "Garaien keinuak" aditzeko izatea
- ❖ Bereizketak egiteko nolabaiteko gaitasuna
- ❖ Mezua zabaltzeko eta berotze orokorraz ohartarazteko baliabideak, sare finkatuak eta bitartekoak erabiliz
- ❖ Gure espiritualitate eta dohaien bitartez elkarbaketzea eta xalotasunik berrreskuratzea
- ❖ Profetiko jarrera aurrera eramatea
- ❖ Ondasun amankomunaren etika bat aurrez aurre jartzea, baita ere sufritzen dutenen edota begirune edo zaintzaren beharrean dauden aldeko etika batekoak izatea.

Gizon-emakume erlijioso garenez, gure ekitekoa izaki guztiengan dirauen Jainkoaren edertasuna eta egona begiestean datza. Begieste horrek *metanoia* eta gizaldatze batetara eraman behar gaitu, hori bait da milaurtealdi berriaren hasieran gure etxe eta Jainkoaren sorkari den planeta honek krisialdirako duen abiapuntu eta irtenbidea.

Gure erantzuna bizi garen lekuaren gisakoa beharko du izan. Kontsumokeria eta balio materialisteko gizarte eta nazioetan bizi direnak izadiarekiko harreman egokiz aritzeko erak dituzte, baina bestelakoak eta desberdinak erabiltzen dituzte bizi duin baten oinarritzko baldintzak lortugaberik dituzten gizarte eta nazioetan bizi direnak.

Hausnarketarako galderak

- **Ingurunezko gaitan erlijiosoek zergatik partehartu behar?**
- **Ba ote da, gainera, beste arrazoirik?**
- **Zer-nolako jarrerak aurkitzen dituzu inguruneaz bizikide diren zure anai edota ahizpengan?**

Ingurunea buruzko kristau etika baterantza

Solidaritzazko etika baten atal garrantzitsuak dira:

- izadiaren balioa onartzea
- ingurunea ondasun amankomunen artean kokatzea
- ondasun amankomunarentzat beharrezko den erakunde egitura bat sortzea
- ingurunea eta garapena uztartzea

Ingurunearen etika egoki batek garapen ekonomikoa eta oreka ekologikoaren bideak elkartu behar ditu.

**Bestearenganako onarpena eta berarekiko nire erantzukizuna,
edozein etikaren zutabe da**

Bestea norbera eta gizaki baliogarriztat onartzeak norberaren portaera aldatzea dakar, norbait den horri begirunea adieraz ahal izateko. Gizaki ez diren izakiak soilik baliabidetzat erabiltzeak ingurunearen zanpaketa ugaria sortu du. Idazteunak, San Frantziskok, Hildegardo Bingenek eta beste mistiko askok adierazten digutena da izadiak berezko moralitasun bat duela, izaki oro denegatik maitatzen baitu Jainkokak.

**Nazioarteko ondasun amankomun bat ba dela jabeturik gaude,
bertako eta nazioetako esparruz gain dagoena.**

Ozeano zein baso, atmosfera, animalia edota landare mota guztien ongizatea nazioetako estatuak zein gobernuen baino haruntzagoko ardura da, ingurune buruzko gaiak amankomunezko eta oroharturiko ondasuntzat finkatu behar dira. Baliabideak berrizta daitezkeen baino arinago ezabatu eta birrintzen ditugunean, edota birziklaezin direnak etorkizuna kontutan hartu gabe agortzen ditugunean, gerorako ondasun dena hondatzen ari gara. Leonardo Boffek dio gizateria, izatez, lurraz konturatzen dena dela, izadi osoa bateginik dagoela konturatzeraz garamatzen pentsabidea bat da hori, hain zuzen. Nahiz eta Jainkoaren asmoak nahi izan gizabanakoak izadian leku eta zeregin berezia dezan, luzarora ez da ongizaterik egongo ingurunearekin era atsegina batetan aritzen ez bagara; giza-pertsonak, iraunarazi ahal izateko, izadiaren beharra bait du, izadiak, ordea, ez du giza-pertsonaren beharrik.

Ingurugiroa babesteko egitura egokiak garatu beharra dago. Honek berekin dakar nazioarteko erakundeen saioak garatu eta laguntzea, hala nola Nazio Batuak eta Kyotoko Hitzarmenaren gisako nazioarteko hitzarmenak.

Ingurunea estatu nazional bakoitza baino haruntzagokoa da

Zer da ORAIN egin dezakeguna?

Ekologiaren benetazko bideragarritasuna elkarren arteko eta guztien onerako diren saiakeraz lortuko da soilik.

"Ingurunearen krisialdia" funtsean balioen krisialdia da, hor datza mundua beste ikuspegiz begiratzeko dagoen jarrera aldaketaren beharra. Gure bizikeraz egin ditzakegun aldaketen gain, garrantzizkoa da nazio eta nazioarte mailako politikak aldatzeko ekimen saioak bultzatzea. Honek berekin dakarrena da ekologiaren aldeko gizaldaketa (ikus Joan Pablo II., 2001ko urtarrilaren 17koa), aldaketa klimatikoa eta ekologiako gaien ulermena sakonduko dituen. Heziketa oso beharrezko da, ez soilik planeta mehatxupean jartzen duten eragilez jabetzeko, baizik ere pertsonak beren izaeraren barrunean duten misterioaz konturatzeko.

Aurrekoan oinarriturik, zer egin dezakegu erlijiosoek? Hona ondoren zenbait asmo:

- ❖ Erlijiosoak iraunarazteko baliabide eta aukerak asma ditzakegu. Elkarbizitzarako dugun hautuak zaintze eta birziklatzearen nondik norakoa adierazteko aukera bikaina ematen digu.
- ❖ Ba liteke gutariko batzuk, egoeraren atal aniztasunaz hobeto jabeturik, bizikeran jadanik aldaketa batzuk eginak izatea eta zenbait aldaketa bideratzerako ekimen politikoetan sarturik egotea.
- ❖ Besteak, txosten honetan ageri den informazioa lehen urratsa gerta dakieke egoeraren larritasuna ulertzeko.

- ❖ Erlijiosoen sarritan euren lekuetako ingurune EGE-ekin (Ez Gobernutar Erakundea) harremanak dituzte, eta euren egitarau ta ekitaldietan parte hartzen dute. Begiratu sarean aldaketa klimatikoaz EGEn antolatutako ekintzak.
- ❖ Ingurunearen alde ari den norbait bat zure anaidian mintzatzeko gonbidatu.
- ❖ Lurgabeko, lekuz aldatu, errefuxiatu eta indigenekin lankidetzarik egin, eta lurra, ura eta basoen aldeko dituzten eskakizunak babestu.
- ❖ *Zer gehiago...?*

Ba ote zenekien historian, lehenbizikoz, ingurunearen babeserako lotuzko den hitzarmenik ba dugula (Kyotokoa), berotegi efektua eraginten duten gas jaulkipenak murrizteko? Hala ere, indarrean izateko 55 nazioek berretsi behar dute -oraingoz soilik 46k egin dute. Gainera, berresten duten nazioen artean berotegi efektua eragiten duten munduko gas jaulkipenen %55aren estatu arduradunak egon behar dute. Honek esan nahi du munduko nazio industrializatuenak berretsi behar dutela, eta horietariko gutxi dira orain arte egin dutenak.

Norbanako mailan zein elkartekoan, hiru “N”ak ... lan ditzazkegu!

Nola Birziklatu...

- Kontsumorako ditugun jarrerak aztertu eta estalki landugabeko ekoizkinak erosi. Biodegradarri diren detergente eta garbigarriak erabili.
- Birzikla daiteken guztia birziklatu: plastikoak, fruta eta barazkien azalak, papera eta kartoia, beira eta poteak.
- Konpost bat egin. Lur zizare batzuk, ostoa, adarratxoak eta lorategiko beste zaborrak erantzten badira, konposta lurrerako ongari guztiz ona izango da.
- Telebisten zein konputagailuen zati erabili eta hondatuak biltzeko arduraz izatea ekoizleei erregutu, batez ere birziklaketa ekitaldi berezia behar duenean.
- *Zer gehiago...?*

Nola Murriztu...

- Uraren kontsumoa arduraz erabiliz.
- Automobilaren erabilera gutxituz.
- Birziklaezinezko gaien erreketa ez eginez.
- Kloro eta fluoro karbonatu eta ordekoen jaulkipenak, aerosolen erabilera saihestuz eta indarra gastatzen ez duten etxetresna elektrikoak erabiliz.
- Argi indarraren kontsumoa fluoreszente argia erabiliz.
- *Zer gehiago...?*

Nola Gogoratu...

- Bertako gobernuei birziklapenaren eta hondakinen ezabatze hautua, zein birziklapen eta hondakinen ezabatze buruzko legeria eguneratua izateko betebeharrak ohartuz.
- Bertako enpresariei euren ekoizkinen estalkiak erraztu behar dituztela adieraziz.
- Bertako agintariei argi indarraren gasta geldotzearen beharra eta eraginkor diren argi indarrak erabiltzea proposatuz.

- Nazioetako gobernuei ingurugiroaren aldeko adierazpen eta hitzarmenetan hartutako hautuak gogoratu.
- Eguneroko harremankide direnei lurra zaintzeko beharra eta "murriztu-birziklatu-gogoratu" eritzia kontsumoaren gidari dela aipatu.
- *Zer gehiago...?*

Lurraren aldeko Gutunarekiko hautua egiteko
<http://www.earthcharter.org> **Zenbait hizkuntzetan eskuragarri**

Zure nazioko Ingurugiro Saila eta politikoekin harremanetan jarri eta galdetu beraiei zer ari diren egiten Kyotoko Hitzarmena gauzatzeko. Estatu Batuetan bizi bazara, nazio hau Hitzarmenetik irten egin duenez, Gubernuburuari idatzi hitzarmenaren partaide izatearen alde egin dezan eskatuz. NBEko bertako koordinatzaile bat bilatu, egoitza nazio bakoitzean Nazio Batuetako Garapen Egitarauaren bulegoa izaten da, Nazio Batuetako erakundeek zure nazioan aldaketa klimatikoarekin zerikusia duten egitarauen egoeraren berri jasotzeko.

Hitzarmena berretsi duten nazio zerrenda eta berretsi gabe dutenena hemen aurkitzen da
<http://www.unfccc.int>

Hausnarketa eta otoitzerako

Txosten hau irakurri ondoren, elkartarekin edo zeure adiskideekin bil zaitezela eta elkarteko otoitza egitea iradokitzen dizugu.

Otoitzerako presta... ur katilua, kandela, lur zati bat.

Otoitzerako deialdia:

"Egun, ingurugiroa zaintzea Izadi osoa tentuz eta begirunez hartzea da; lurra, haizea eta ura izakien orekarako beharrezko direnez, lurra moldatzerakoan giza ekimenek bermatu behar dute oreka hori ez dutela birrinko. Ingurune gaia sozial, ekonomiko eta politiko hausnarketaren ardatz bihurtu da, batez ere, suntsipenak egiten direnean gizarteko partaide ahulenak bortizki erasotuak izaten direlako. Aldaketa klimatikoaren arriskua eta izadiko hondamendien ugaltzeak gaurko gizarte modernoaren norabidea eztabaidapean jartzen dute. Aberats eta behartsuen arteko aldea desberdintzen doanez ezin gaitezke epel gera, ezta planetaren baliabideen gehiegizko kontsumo aurrean ezta izaki moten desagertzean." *François Xavier Nguyen Van Thuan*, Kardinala, Justizia eta Pakea Pontifikal Batzordeko Buru.

Egin dezagun otoitz batera 148,1-10 Salmoarekin.

Ixilune bat galdera hauk hausnartzeko:

Zerk zirrarratu zaitu gehien txostena irakurtzerakoan?

Zein jarrerak aurkitzen dituzu zugar?

*Bizi zaren tokian nabaritu ote duzu berotze orokorraren arrastoren bat ?
Zure lekaidiko adierazpeneka (Arau Nagusia, Biltzar Nagusietako Agiriak, e.a.)
aipatzen ote dute Izadiarekiko begirunea?
Zure nazioko Gotzai Batzarrak egin ote du adierazpenik berotze orokorraz?
Zertara deitzen du bertako Eleizak?*

Ekimenerako deia:

Berotze orokorraz duzun ardurari erantzuna emateko, zein ekintza hasiko duzu?

Amaierarako otoitza

Goratua zaitetz, ene Jauna, izaki guztiengan,

batez ere anai jaun eguzkiarengatik,

**dirdai haundiz ditziratsu argitzen du eguna eta bere bitartez argitzen
gaituzu.**

Ederra, argitsu, ditzira handikoa da,

eta Goi-goiko zaren Horrena darama itxura.

Goratua zaitetz, ene Jauna, arreba hilargia ta izarrak direla ta;

argitsu, bitxi ta eder dauzkazu zeruan jarrita.

Goratua zaitetz, ene Jauna, anaia haizea eta aireagatik...

**Goratua zaitetz, ene Jauna, arreba Uragatik,
txit onurakor, umil, bitxi eta garbi delarik.**

**Goratua zaitetz, ene Jauna, anai suagatik,
bere bidez argitzen duzu gaua....**

Goratua zaitetz, ene Jauna, gure arreba ama lurragatik,

berak mantentzen gaitu eta bera dugu gidari eta fruitu asko dakarki

lore polit belarrekin...

**Goraipa eta onetsi, ene Jauna, eman eskerrak eta zerbi ezazue Hura
apaltasun haundiz."**

Izakien Eresiaren laburpena (Asisko San Frantzisko)

Gaiaren informazio gehiago jasotzeko, edota sakontzeko ta zer egin jakiteko:

Web orrien eta beste baliabideen laburbilduma (batzuk hizkuntza anitzetan daude)

1. Greenpeace: <http://www.greenpeace.org/>

2. Climate voice: <http://www.climatevoice.org/>
3. "Carta de la Tierra"- <http://www.earthcharter.org/>
4. Amigos de la Tierra: <http://www.foei.org/>
5. Planet Ark: <http://www.planetark.org/index.cfm>
6. Instituto Internacional para el Desarrollo Sustentable: <http://www.iisd.ca/>
7. Unión de Científicos Preocupados: <http://www.ucsusa.org/warming/index.html>
8. Convención de las Naciones Unidas sobre Cambio climático: <http://www.unfccc.int>
9. World Wildlife Fund: (aldaketa klimatikoari buruzko argibide erraza, lau hizkuntzetan) <http://www.panda.org/resources/publications/climate/crisis/crisis.htm>
10. Programa Ambiental de las Naciones Unidas: <http://www.unep.org>
11. Programa de Desarrollo de las Naciones Unidas: <http://www.undp.org>
12. Organización de Comida y agricultura: <http://www.fao.org>
13. Alianza para las religiones y la conservación: <http://www.religionandconservation.org>
14. Climate Action Network <http://www.climateactionnetwork.org>
15. Aldaketa Klimatikoari buruz Eleizen Munduarterko Batzordearen Egitaraua: Dr. David G. Hallman, Koordinatzaile, c/o The United Church of Canada, 3250 Bloor Street West, Toronto, ON, Canada M8X 2Y4 Tel: +1-416-231-5931 Fax: +1-416-231-3103 E-mail: dhallman@sympatico.ca

Hizkuntza desberdinetan

Alemanieraz:

<http://www.hamburger-bildungserver.de/welcome.phtml?unten=/klima/infotek.htm>

<http://www.klimaschutz.de/kbklima/>

<http://www.klimabuendnis.at/daskb/index.html>

<http://www.treibhauseffekt.com/>

Frantsesez:

<http://www.agora21.org/mies/chan-clim1.html>

<http://fr.fc.yahoo.com/r/rechauffement.html>

Gaztelaniaz:

<http://www.pangea.org/personasenaccion/>

<http://www.ine.gob.mx/>

<http://www.lareserva.com/>

Idazteunak eta Eliz Agiriak:

Hasiera (Genesis) 1:1-2:3; 9:9-11

Irteera (Exodoa) 3:7-10; 15:22-27; 23:10-12

Lebitarra 25:1-24

Jakinduria 11, 24-26

Isaias 11:1-9; 40:12-31

Daniel 3:57

Salmoak 8; 19; 24; 104:16-23; 136; 148:1-4 eta 7-10

Esaera Zaharrak 8:22-31

Markos 5:35-41

Markos 12, 29-31

Mateo 5,1-14

Mateo 12,22-34

Mateo 6:26-30

Lukas 16:19-31

Joan 9; 12:23-26
Erromatarrei 8:18-25
Kolosarrei 1:15-20
Apokalipsia 21:1-5; 6:16-21
Erromatarrei 8, 22-24
Korintoarrei 1 Cor.3, 9

Eliz Agiriak Ekologiaz

(Zure nazioko Gotzai Batzarraren zein eskualdearenak bilatu)

Joan Pablo II.ren Bakea aldeko Munduarte Eguneko Mezua (1990eko urtarrilaren 1): Jainko Sortzailearekin baketurik, Izadi osoarekin baketurik
Eleiz Katolikoaren Kristau Jakinbidea: 299-301; 307; 339-341; 344 2415-2418
Encíclica *Populorum Progressio* Entziklika, 23, 24
Fides et Radio Entziklika, 104
Centesimus annus Entziklika, 37-38
Laborem exercens Entziklika, 4
Mater et Magistra Entziklika, 196, 199 zkiak
Octogesima adveniens Idazti Apostolikoa, 21
Redemptor hominis Entziklika, 8, 15
Sollicitudo rei socialis Entziklika, 26, 29, 34
Octogesima Adveniens Idazti Apostolikoa, 21

Ekologia eta Ingurunea buruzko ospakizun egunak

Martxoak 22	Uraren Nazioarte Eguna
Apirilak 22	Lurraren Eguna
Maiatzak 22	Biologi Desberdintasunaren Nazioarte Eguna
Ekainak 5	Inguruneare Munduarte Eguna
Ekainak 17	Basamortutzearen aurkako Nazioarte Eguna
Irailak 16	Ozono Azalaren Babeste Eguna

**Txosten honen edukinaz ideiarik zein iradokizunik edota beste adieraztekorik baduzu,
zure lekaidiko Justizia ta Bakea koordinatzailearekin harremanetan jarri:**

Izena:

Posta elektronikoa: